



LANGILE ABERTZALEEN

BATZORDEAK

C/ Astarloa, n. 6, 4.
Tfn. 4 24 91 60 / 67 / 68 / 69
BILBAO - 1

LAN HITZARMENERAKO BEHIN BEHINEKO PROPOSAMENAK

1987.eko MAIATZA

**ZA
BAI
TZEN**

TXT 10069

DO
ZEN

LAB - HABE



HAU, EZ DA PLATAFORMA OSO ETA BORO BILDU BAT,
LANTOKI GUZTIAN EZTABAIDATZEKO ZIRRIBORROA
BAIZIK. GUZTION ERITZIAK ETA PROPOSAMENAK
KONTUTAN HARTUTA EGINO DA PLATAFORMA DE-
FINITIBOA.



LAN HITZARMENERAKO BEHIN BEHINEKO PROPOSAMENAK

SARRERA

Duela 3 urte egin genituen lehenengoz PA-HABEn hauteskunde sindikalak, ELAK susperturik. Garai hartan, sindikatu honen plataforman, HABE, euskera irakaskuntzan diharduen erakunde autonomoa, irakaskuntza moldeetan sartzea jotzen zelarik helburu nagusitzat.

Administrazioak eta HABEren zuzendaritzak, hainbat argudio zeken erabiliz eta aurreakordio bat suntsituz, betidanik egin ditu ahaleginaguztisk bide hau oztopatzeko.

Garai hartan, lehen hitzarmena lortu nahian, negoziazio bide guztiak jorratzen saiatu ondoren, borroka bideetara jotzera behartu gintuzten, ez bait geneukan beste irtenbiderik, eta presiobideak martxan jarri genituen. Hiru astetan greba gogorra mantendu ondoren irakaskuntza moldeen bidean jarri ginen, uztaillaren bigarren hamabostaldia opor lortuz, ordu lektibo ei eutsiz, Baina oraindik, hainbat arlotan ez garela molde horietara hurbildu esan behar.

Jadanik badirela hilabete batzuek, ELA-koek ziotenez, administrazioarekin oinarritzko akordio batetan adostasunera ia ia helduta zeuden, hauek zirelarik puntu garrantzitsuenak;

- a)-Lantokian betetzeko 6 ordutako lanordua
- b)-Ordu lektiboak mantendu
- c)-Uztaila eta abuztua opor

Ikuskera batetan eta beste zehaztasunik gabe puntu horiek a priori, guztiz onargarritzat jotzen dituen arren, LABek beste arazo batzuri ere aurre egin nahi die eta horrexegatik duzu zeure eskuetan LABek proposatzen dizun plataforma.

Dena den, ondo dakigu erreza dela plataforma ederrak proposatzea, baina zerbait lortu nahi badugu, borroka eta batasuna izango direla (gure tresnarik egokienak) ezinbestekoak.

A. LANPOSTU BALORAPENAREN ARAZOAK

Administrazio Autonomikoan egindako lanpostu balorapenak direla eta, zera salatu nahi dugu:

1. Jerarkizazioa sendotu eta finkatu egiten dela, soldaten arteko ezberdintasunak handiagotuz.

2. Irakasle goa eta administrariak, beste sail il batzuetakoekin konparatuz, diskriminaturik geratzen direla, lan emankorra beraiek egiten duten arren. Batzuei 17. maila, eta 13.a besteei dagokiela uste dugu.

3. Administrariak, nahiz eta guztiak ia lan bera egin, hiru klasifikapen desberdinetan banaturik jartzen direla.

4. HABE-ko langileen urteko lanorduen kopurua 1.700 ordutakoa dela, hitzarmenak garbi adierazten duen legez, beraz, lanpostuen balorapenaren ondorioz jasotako mailaren araberako soldataren gehiketa osoa kobratzea dagokiela, inolako lanordu gehitzerik gabe. Administradioak, ELA-ren laguntzaz sortu duen egoera, LAB-ek txantaia onartezintzat jotzen duelarik.

Guzti honen aurrean, eta gai hau luzarorako borroka moduan hartu arren, LAB-ek, gogor jokatu-ko du horrenbeste estamendu sortzearen eta lanpostu eta soldaten jerarkizazioaren aurka, lan desberdina edota neketsuagoetarako beste konpentsazio bide batzu bilatzea proposatzen duelarik.

B. IRAKASKUNTZA MOLDEEI GARRAIZKIE

Bi berezitasun oso nabariak dira azpimarratze-koak HABE-ko irakasleek garatzen duten lanean: Alde batetik helduen irakaskuntza moldeetan dagoela eta bestalde, urte ososan zehar HABE-ko irakasle goa ikastaro trinkoak inpartitzen aritzen dela. Guzti honek, bertan garatzen den lanari ezaugarri oso bereziak ematen dizkio eta ondorioz LAB-ek zera adierazten du:

1. Nahiko arrazoi dagoela egungo oporrei hamabostaldi bat gehitzeko, beraz zera proposatzen du: datorren ikasturterako 194 lanegun, uztaila eta abuztua opor, gabon eta aste santuan irakas-


kuntzako ohizko oporrak, zubiak zubi eta herriko jaietarako 2 egun.

2. Ordu lektiboëi buruz, oraingoan mantentzea proposatzen dugu, hau da, astean 18,45 ordu gehiengoz eta lan berezirik egongo balitz (programazioen bat burutzea, metodoen bat ikertzea,....) kopuru hori gutxitzea.

Ordu lektibo hauek ez daitezen gehitu, gaixotasun, baimen, lizentzi eta bereziki medio, HABE-ren zuzendaritzak lurralde bakoitzeko irakasle ordezkoen zerrendak edukitzea eskatzen dugu, hutsuneak azkar bete ahal izateko. Hamabost egunetik gorako gaixotasunetan eta astebetetik gorako baimen eta lizentzietan, berehala ordezkatzeari ikusten dugu bidezko.

C. KONTRATUAK

Kontratu mailan, bada LAB-ek lehenbaitlehen bideratu nahi duen arazoa; aldiatarako kontratuen hain zuzen ere. Ikasturte osoan zehar lan egin arren, kasu askotan 6 hilabeterako kontratuak egiten dira. Horren aurrean, urte osoko kontratuak exijitzen ditugu eta beste irakasleen eskubide guztiekin, noski. LAB-ek ez du behin-behineko kontraturik, baimen, lizentzi edo baja kasuak ordezkatzeko ez bada.



D. SOLDATA

Joan diren bost urteotan, ez digute geure soldata bizitza garestitu den neurrian igo, ezta antzik ere, beraz martxa honetan, eta badirudi ez dutela norabidea aldatzeko gogorik, gure soldata, ren eros ahalmena gero eta gehiago jeitsiz doanez, etengabeko beherakada horri aurre egin beharrean gaude.

LAB-ek datorren konbeniorako % 8,3 ko soldata igoera eskatzen du (%4 proporzionala eta %4,3 lineala) K.P.I aren igoeraren arabera hain zuzen ere. Bestalde osagarritzko ordainketak, onarrizko- etara pasatzea ere eskatzen du.

E. ADMINISTRARIAK

Ezin da administrariekin lan ordutan egiten den diskriminazioa onartu. Denok jarraiko ordutegia behar dugula uste dugu, irakasle zein administrari, bai goizez bai arratsaldean egiten diren txandetan. Opor mailan ere irakaslegoarekin parekatzea eskatzen dugu administrariarentzat.

F. OSASUNA

Grabea dirudigu arlo honetan administrazioak duen jarrera: HABE sortu zenetik (6 urtetara doa) ez dugu oraindik langileok osasun azterketa bat beharrezkotzat jotzen dugularik.

Bestalde, irakaskuntzak eta administrari la-

nak, gaixotasun profesionalak izanik, gai horretaz azterketa serio bat beharrezko ikusten dugu. Espazio, entzun, argi, eta beste hainbat baldintza, egokiak eskatzen ditugu.

G. BERZIKLAPENA, BEKAK, KATEDRA ASKATASUNA

1. Irakaskuntzan, eten gabeko hausnarketa behar dela eta horretarako, lan egunen barruan berziklapen ikastaroak egin beharko liratekela uste dugu. Horrez gain, ikastaro hauek antolatzeko orduan irakasleek esku-hartzeko aukera izan beharko lukete. HABE-n azken hiru urteotan ez da inolako berziklapenik antolatu eta inoiz antolatu denean goiko jerarkietan egosi da dena irakasleekin ezertarako kontatu gabe.

2. Langilegoaren unibertsal ikasketei buruz, hezkuntzakoek duten egoera bera eskatzen dugu. Hizkuntza, irakaskuntza edota HABE-n garatzen den lanaz zerikusirik duen edozein ikasketa motaren kasuan, HABE-k ikasketa horiek oso osoan subentzionatu behar dituela uste dugu.

3. Irakaslegoaren katedra askatasun osoa aldarrikatzen dugu, programaketa bakoitzak bere erara moldatzeko eskubide osoa duelarik, goi-jerarkiak sortzen duen burokraziapean buru makur egon beharrik gabe.

Bestalde uste dugu irakaslea, irakasle den neurrian, gai dela bere ikasleek zer maila, zer oztopo eta abar duten jakiteko, beraz ez duela behar ikaslegoaren gandik hain urrun dauden goi-estamentuetatik datorren inolako beste deinkapenik. HABE-n gero eta indar handiagoz ari dira azterketa-ebaluaketak inposatzen, medio bezala hartu beharrean, helburutzat hartzen direlarik eta horren guztiz kontra gaude.

H. ORDU EXTRAK ETA ABAR

Gai honetan, hauexek dira LAB-en proposamenak:

1. Ordu extrarik ez egotea
2. Zerbitzu beharrianak direla eta derri-gorrezkoak diren kasuetan, ordu extra horien truke, ordu libreak hartuko dira. Ordu extra bakoitzeko bi ordu libre eta guez edo jai egunetako kasuan, hiru.
3. Plurienpleoari ezetz borobila.
4. Kontratazio mota guztietan, ordezkari sindikalek parte-hartzea

I. BUROKRAZIA

Baimen, lizentzi zein bestetarako HABE-n dagoen burokrazia absurdoa gogor salatzen du LAB-ek langileen eskubideak oztopatzeko besterik ez duelako balio. Bide errez, azkar eta logikoagoak eskatzen ditu.

